

# IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

2021

EUSKERA NARRAZIO 14-16 URTE

LEHENENGO SARIA:

*Erruduna*

Oihane León Ruiz

Unaik 20 urte zituen eta bere guraso eta ahizparekin bizi zen Iruñeko etxe txikitxo batean. Marketing ikasten ari zen unibertsitatean, eta Covid-19aren egoerak baldintzatuta klase erdi-presentzialak zituen irailetik. Urte eta erdi hori oso gogorra izan zen eta soilik konfinamendua eta 2020 urtea gogoraraztearekin, malkoa erortzen zitzaion. Momentu horretan, 2021eko maiatza zen eta bere karrerako bigarren kurtsoko azken azterketak gelditzen zitzaizkion oraindik egiteko Unairi. Oso nekatuta zegoen, baina motibatzen zuen pertsona bat zegoen.

Ordu eta erdi barru, pertsona horrekin geratzekoa zen Ziudadelan bueltatxo bat emateko eta pixka bat ikasketez deskonektatzeko. Mikelengan pentsatzean irrifar inozo bat atera zitzaion. Pasa den urtean ezagutu zuten elkar unibertsitatean, biak ikasketa berdinak egiten ari ziren eta. Gutxinaka-gutxinaka elkar ezagutzen joan ziren, bien lagun taldearekin geratzen, haiek bakarrik eta azkenean bikote egiten ziren. Gero, konfinamendua iritsi zen eta oso faltan bota zituzten elkarrekin pasatzen zituzten momentuak. Baina guzti hori gainditzea lortu zuten eta bere harremanak normal jarraitu zuten.

Egun batez, Unai dutxatu egin zen eta motxila beltz bat atera zuen armairutik. Bertan, pala txiki bat, bi musuko, gel hidroalkoholiko pote bat, hainbat orri txuri, bi boligrafo, kristalezko botila bat eta egurrezko kutxa bat sartu zituen. Eta zertarako gauza hauek? Bai Unaik eta bai Mikelek, txikitatik zuten amets

# IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 14-16 URTE

LEHENENGO SARIA:

moduko bat betetzeko: AEBetako filmetan agertzen ohi den gauza bat egitea, oroitzapenen kaxa. Etxetik zeukan kaxa batean, orain bizitzen ari zirenarekin zerikusia duten gauzak sartu, musukoak adibidez, gero kaxa lurperatu eta ea norbaitek noizbait aurkitzen zuen. Haiek horixe bera egin behar zuten arratsalde horretan. Unai poz-pez atera zen etxetik eta azkar batean joan zen, bere mutil laguna ikusteko irrikaz. Beraz, motxila, musukoa, txaketa fin bat eta motorreko kaskoa hartu zituen.

Ziudadela ondora iritsi zenean, motorra aparkatu eta oinez hasi zen Mikelekin elkartzeko. Bat-batean, bere gelakide baten mezu bat ikusi zuen. Bertan, bere orientazio sexualagatik iseka egiten zion, putaseme, marikoi eta antzekoak esanez. Unairi malko bat erori zitzaion. Iñakik kurtsoa hasi zenetik, horrelako mezuak bidaltzen zizkion egunero eta oraindik min ematen zioten. Ez zion ezer ez erantzun eta hitz txar horiek burutik baztertzen saiatu zen.

Mikelekin elkartu zenean eta muxu bat eman zionean, arraro zegoela sumatu zuen. Beraz, motxila lurrean utzita esertzea proposatu zion Mikeli. Hizketan hasi ziren eta bat-batean Mikelek esan zion:

–Gogoan al duzu eskatu nuen kirol beka? Estatu Batuetako unibertsitatean ikasteko aukera ematen didana?

–Bai... –esan zuen Ikerrek mesfidati.

–Ba azkenean eskuratu dut! Abuztuan joango naiz hara eta ikasketekin jarraituko dut saskibaloian jolasten dudan bitartean.

–Hara! Ze ongi, pozten naiz- erantzun zion Unaik triste xamar.

–Iker, ez zara pozten ezta pixka bat ere? –Mikel haserre.

–Ba ez asko, ez dugulako asko gai honetaz hitz egin eta joaten bazara dena aldatuko da. Nahiko berekoia iruditzen zait zure partetik.

# IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 14-16 URTE

LEHENENGO SARIA:

–Nire partetik? Zu zara haserretu zarena niretzat oso garrantzitsua den berri bat esan dizudanean! –oihukatu zuen Mikelek.

–Ez jarraitu hortik Mikel. Ni banoa, hitz egingo dugu lasaitzen zarenean.

–Berdina esaten dizut Unai!

Unai motxila lurrean utzita azkar aldendu zen hortik eta negarrez hasi zen. Motorrera ailegatzean kaskoa azkar jantzi eta gidatzen hasi zen. Lehenbailehen iritsi nahi zuen etxera. Bat- batean, kotxe bat oso azkar hurbiltzen zela antzeman zuen eta danba! lurrera erori zen buruan kriston kolpea hartuta.

Unai esna zegoela sumatu zuen, baina konturatu zen ezin zela ez mugitu, ez hitz egin, ez begiak ireki... Desesperatu eta izutu egin zen hura bere logela ez zelako. Gainera buruan min handia zeukan. Bat- batean zera entzun zuen:

–Aste bat darama koman, ez dakizue noiz esnatuko ote den? –bere amaren ahotsa zen.

–Ez, ezin dugu hori jakin, sentitzen dut.

–Eta zer egin dezakegu guk orain?

–Saia zaitetze zuen bizitzekin aurrera jarraitzen eta baita ere Unai asko bisitatzen. Nahiz eta koman egon, ongi etorriko zaio bere lagunak eta familia hurbil sentitzea.

Unairen burua momentu horretan bueltaka hasi zen. Nolatan zegoen ospitalean? Zer gertatu zitzaion? Ez zen ezertaz gogoratzen. Zergatik entzun zezakeen guztia baina ezin zuen hitz egin? Guztiak erantzunik gabeko galderak bihurtu ziren eta honek Unai nahiko agobiatu zuen. Ez zekien zenbat denbora igaro zuen bere pentsamenduetan barna eta momentu batean bere ahizpa agertu zela entzun zuen. Ama ospitaleko kafetegira joaten zela esaten zion honi. Bere ahizpak egun horietan gertatutakoak kontatu zizkion eta bat- batean entzuteari utzi zion.

# IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 14-16 URTE

LEHENENGO SARIA:

Berriro esnatzearen sentsazioa zuen Unai. Gertatukoari buruzko oroitzapenak zetorzkion burura. Bere ama eta erizainaren elkarrizketa, bere ahizparen kontakizunak... Baina dena gainetik gogoratu zuen. Nahiko beldurtu zen eta momentu horretan bere lagunaren ahotsak beregana hurbiltzen entzun zituen.

–Arraroa egiten zait oraindik Unai bisitatzera etortzea. Nahiz eta hilabete bat igaro den istripua gertatu zenetik –esan zuen Irantzuk.

–Bueno, ez nago oso seguru istripu bat izan zenik... –erantzun zion Asierrek ahotsa moztu zitzaion aldi berean.

–Bueno Asier, gero hitz egingo dugu horretaz, ez dut uste orain momenturik egokiena denik... Gainera bakarrik 15 minutu ditugu Ikerrekin egoteko.

Orduan bi lagunak hizketan hasi zitzaizkion Unairi, baina hau bere gauzetan pentsatzen hasi zen. Hilabete bat zeraman horrela, baina berak bi egun izan balira bezala sentitu zituen. Istripu bat izan zuen? Ez zen ezertaz gogoratzen. Gainera gauza bat etorri zitzaion burura: ez zuen inoiz Mikel bere ondoan entzun. Horrek nahiko tristatu zuen, izan ere, zergatik ez zen bere mutil laguna berarekin egotera joango? Pentsamendu hori baztertzen saiatu zen, ziurrenik bisitan joan zitzaion eta bera lo egongo zen.

Esnatu zen hurrengo aldian, bi ahots entzun zituen: bere aitarena eta beste gizon batena. Unai adi-adi entzun zituen eta gizonari entzun zion esaten polizia zela. Baita ere komentatu zuen, asko sentitzen zuela kasua hainbeste luzatu izana. Orduan bere aita kexatzen entzun zuen, poliziari erantzunez bi hilabete pasa zirela eta ez zutela berririk izan Unai harrapatu zuen pertsonaren inguruan.

–Bai, asko sentitzen dut baina informazioa ez dago oso argi. Alde batetik eskuratu zeniguten Unairen mugikorreko kopia begiratzen aritu gara. Bertan, ikusi dugu mutiko batek nahiko mezu desatseginak bidali dizkiola irailetik.

# IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 14-16 URTE

LEHENENGO SARIA:

–Baina hori...

–Utzidazu jarraitzen mesedez –esan zuen poliziak Unairen aita moztuz– gainera lagunekin hitz egin dugu eta baita haiek ere esan digute unibertsitatean mutiko horrek Unai intimidatzen zuela ia egunero. Beraz, susmagarrietako bat da.

–Nola susmagarrietako bat? Gehiago daude? Ez dut ulertzen norik gehiago nahiko zuen Unai mindu, benetan –esan zuen Unairen aitak negarrez.

–Bestea bere mutil laguna da, Mikel. Istripua gertatu zen tokiaren inguruan zeuden kamerek hori diote behintzat. Bere kotxea da eta gainera bolantearen atzean dagoela ematen du.

–Eta zergatik ez duzue iada atxilotu? –galdetu zuen Unairen aitak haserre.

–Argi ez dagoelako bera denik bideoan agertzen dena eta, gainera, berak dioenez, ordu horretan etxean ikasten zegoen. Bere gurasoak lanean zeudenez, ez dago inor bere testigantza egia edo gezurra den esateko.

Momentu horretan Unai asko beldurtu zen eta bere buruari galderak egiten hasi zen. Zergatik esango liokeen Mikelek gezurra poliziarri? Ez zitzaion posiblea iruditzen bere mutil lagunak harrapatu izana... Nahiko arraroa zen guztia. Gainera, beste alde batetik, beste mutikoa zegoen, baina ez zuen kapaz ikusten norbaiti min emateko bere orientazio sexualarengatik. Baina bi aldiz pentsatuz gero, edozein gauza espero zuen gizarte honetatik.

Bat-batean, Unai esnatu egin zen, baina benetan. Begiak ireki zituen eta leihotik sartzen zen argiak ia ez zion ikusten uzten. Poliki-poliki eguzkiaren argira ohitu zen. Ez zekien ezta zer egun zen ere. Hori bai, nahiko lasai zegoen azkenean esnatu zelako. Minutu batzuk geroago bere gurasoak sartu ziren gelara. Biei malko bat erori zitzaien begietatik eta geldirik geratu ziren. Lasai-lasai hurbildu ziren Unairen ohera, hau ez estutzeko. Musu asko eman ondoren erizaina deitu zuten. Honek galdetu zion ea zer moduz zegoen eta proba batzuk egitera eraman zuen ordu batzuk pasa ondoren.

# IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 14-16 URTE

LEHENENGO SARIA:

Egun batzuk geroago, Unai etxera bueltatu zen. Bi hilabete eta erdi koman egon zela azaldu zioten. Gutxinaka- gutxinaka, oinez hasi zen berriro, jaten eta bizitza normal bat aurrera eramaten. Baina nahiko zaila izaten ari zen, izan ere, motorretik erortzerakoan hanka bat apurtu zuen. Gainera ubeldurak ere bazituengorputz guztian zehar eta min handia ematen zioten.

Aste bat igaro zen etxean zegoenetik eta denbora horretan zehar gauza bakarra zuen buruan: nork harrapatu ote zuen. Bere gurasoek ez zuten horretaz asko hitz egin nahi izan, baina hala ere, polizia behin baino gehiagotan egon zen Unairen etxean harekin hizketan.

Bi aste igaro dira Unai etxean dagoenetik eta gaur poliziaren komisaldegira joan behar du bere gurasoekin. Gaur da eguna. Gaur esango dio poliziak nork harrapatu zuen duela ia hiru hilabete. Familia osoa joango da, bai Unairi laguntza morala emateko bai makuluekin ibiltzeko laguntzeko ere. Kotxean daudenean, bere ahizpak Unairi begiratzen dio kezkatuta. Galdetzen dio ea zer moduz dagoen eta honek "nahiko urduri" motz batekin erantzuten dio. Baina hori ez da inolaz ere egia. Izan ere, bakarrik berak daki Mikelekin haserretu zela istripua baino lehen eta datu horrek gauzak nahiko alda ditzake baita Mikel susmagarriago bihurtu ere. Bost minutu baino ez dira gelditzen eta Unaik oraindik ez daki zerbait esango duen ala ez.

Azkenean iritsi dira komisaldegira. Unairen ahizpak kotxetik jaisten laguntzen dio eta gutxinaka- gutxinaka hurbilduz joaten dira. Sartzerakoan Unai oso urduri jartzen da eta makulu bat erortzen zaio lurrera. Hartzen duenean eta berriro aurrera begiratzen duenean, hor ikusten du. Poliziaren ondoan dago zutik, postura erlaxatu batean, ezer gertatu ez balitz bezala.

–Ezin dut sinetsi, zu izan zinen! –esan du Unaik harrituta.